

Euskotarren irudi berri bat

Euzko Gaztedi, 1966-11: 5.

Euskotarrok ez gera beti berdiñak izan.

Alegia, aro edo garai bakoitzean gure lan-bide, bizi-bide ta lege bereziak eta egokiak izan ditugu. Ezin ba da arkaitz zulotan bizi zan euskotarra orain arratsetan telebisioa ikusten egoten dan euskotarrarekin berdindu; ez bere sendi ta soziedadea osatzeko bideetan, ezta bere jan oituretan eta estalpe bearretan ere, ezta lanean erabiltzeko erremintetan ere, ezta mundua ikusteko bideetan ere, ezta asmoak, ideak, sortu ta eginkizun biurtzeko eragin-bideetan ere.

Aro bakoitzeko euskotarrak bere bizi-neurriak arkitzen ditu; ta ala bear, bestela ez genduan gaur arte iraungo ta.

Euskotar geienak au aitortuko dizute, irakurle, ez baitago egi nabarmena ukatzerik. Baiñan euskotar asko ditugu oraindik guk "len" bezela, "beti" bezela, iraun bear degula uste dutenak. Alegia, gu euskotar izango ba gera, guk erri bezela iraungo ba degu, "betikoak" izan bear degula edo onez uste dutenak.

Eta "egi" au ez da egi osoa; eta batzuetan gezur ere biurtzen da; ta garaiz espejismo au ikusten eta gudatzen ez ba degu, gure kalte aundirako izango dala uste det.

Ba dira, bai, noski, guk egitaz iraungo ba degu gurekin betiko iraun bear duten sustraiak. Zaiñ oiek ez ditugu igartzen utzi bear, eta ez ditugu bestelakoen truke eman bear. Or ditugu izkuntza, batez ere, ta gure barren-barrengo beste erri-izatearen ezaugarriak. Baiñan gañerantzeko ezaugarri diruditen gauz batzuek aldatzearekin ez degu gure izakerik galduko.

Ez au bakarrik, egitaz aldaketak gerok egin bearrean gera erri bezela aurrerabiderik izango ba degu.

Ez geiegi luzetzeko, lantxo onek motxa bear baitu, ara aspaldi onetan gure buruatzaz besteak (eta guk ere bai askotan) duten irudia: abarka ta bluxarekin jantzitako baserritarra.

Baserritar izateak lotsatzen eta gaitu? Ez orixe!

Euskotar geienok baserritarrak ez ba gera ere ez daukagu baserria urruti; ta ez daukagu baserri-usai eder ori iñora botatzeko. Baiñan baserria ta baserritarra "klise bezela" bai, bota bear degu.

Baserritar klise onekin batera gure erria galduko al da? Ez.

Batetik, gure baserriari lagundu bear diogu, ta al degun eran sendotu ta aberastu bear degu. Baserriak alkarrekin lanean jarriz, gure baserritarraren eskuak tresna berriz jantziaz, automobil eta kamioi ta traktore bideak baserriari irikiaz. Gure baserritarrak lengo abarka ta bluxa klisea izatez utziko du, ta ez du gure erriak orregatik ezer galduko. Ez degu, ez, gure baserritarraren aurrerapenarengaitik bere jatorririk galduko "baldin bidezko aldaketa orrekin batera beste euskaltasunari euzten ba diogu!

Bestetik, Euskal Erria'ri bide berriak irikitzen esna ta erne jarri bearrean gera, ta gure baserrietako semeak kalera, fabriketara, teknika ikastoletara ta unibersidadeetara ba doaz, ez degu ikaratu bear, gure erriak tekniko ta profesional berriak irabazten ari dan señaleara baita, "baldin aldaketa oiekin batera bere euskaltasunik, egitazko, barrengo, eusko-izaterik galtzen ez ba du". Ara emen gure egitazko lana!

Biziari eldu bear diogu lenen; bideak pasako dira, modak pasako dira, kliseak aixa joango dira, beste sustraiei eltzen ba diegu.

Ara emen gure egin bearra!

Euskotar-baserritar binomio onen ordeaz beste euskotarraren irudi berri bat egin bear degu, berritu bear degu; gure betiko sustrai jatorrik utzi gabe, aberastuta baizik. Dabaneko, gaurko euskotarrak fabrika-gizonak dira geien; eta biar geiago izango dira. Ta orduan ere Euskal-Erriak bizi bear du, ta Euzkadi izango da.

Gorde ditzagun, ba da, gure sustraiak, egitazko sustraiak. Ez gorde bakarrik, aberastu ditzagun. Eta gañerantzeko aldaketak ez gaitzala ikaratu, kliseak besterik ez dira ta.